

# Institutu Onkologiko Berria

## Nuevo Instituto Oncológico



### 1. Enpresaren aurkezpena

**kutxa** irabazi asmorik gabeko eta gizarte-izaerako entitate finantzarioa da. Bere Estatutueto 8. artikuluen arabera: “... ez du irabazirik eta dibidendurik banatuko...” eta Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala izan ziren erakunde sortzaileak.

Gure jarduera-eremuetako ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapenarekin konprometitu dagoen finantza-etxe bat gara.

Gure jarduera partikularrei, profesionaleri, enpresei eta erakundeei zuzenduta dagoenez, horiei gaitzen lagundu behar diegu, produktu eta zerbitzu finantzario eta parafinanzarioen gama osoa eskainiz, lehiakortasun-baldintza onenetan betiere.

**Kutxaren** kaudimena ziurtatzeko beharrezkoak diren erreserbak osatu ondoren, lortutako emaitzak helburu sozial eta kulturaletan erabiltzen dira, gure bezeroen eta gizarte osoaren mesedetan.

### 2. Aurrekariak eta helburuak

Institutu Onkologikoa erreferentziako zentroetako bat da Estatu mailan, gaixotasun tumoralen tratamenduari dagokionez. **Kutxaren** Gizarte Ekintza osatzen duten erakundeen artean estimatuenetakoa da, eta **Kutxak** egiten duen laguntza-lanaren adierazgarri gorenena. Horrela, bada, 2008ko bere emaitzetatik, kutxak 15,5 milioi € bideratu ditu guztira Institutu Onkologikora, eta horrek **kutxak** Gizarte Ekintzari eskainitako ekarpen osoaren % 29 ia hartzen du. Institutu Onkologikoaren jarduera arruntak –guztira 26,6 milioi euroko gastua suposatzen dutenak– ezingo lirake aurrera eramanez Osakidetzarekin eta Erakunde laguntzaileekin sinatutako Hitzarmen ekonomikotik datozen diru-sarrerarik gabe (22 milioi €) eta, neurri txikiagoan, sektore pribatuko sarrerarik gabe (2,5 milioi €). Bi horien artean 24 milioi € baino

### 1. Presentación de la empresa

**Kutxa** es una Entidad de carácter financiero, de naturaleza no lucrativa, social, y según el Artículo 8 de los Estatutos: “...no repartirá beneficios ni dividendos...”, siendo la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián sus entidades fundadoras.

Somos una entidad financiera comprometida con el desarrollo económico, social y medioambiental de las zonas de actuación.

Nuestra actividad está orientada a los particulares, profesionales, empresas e instituciones a los que debemos facilitar su progreso a través de la prestación de una gama completa de productos y servicios financieros y parafinancieros en condiciones de máxima competitividad.

Nuestros resultados, una vez dotadas las reservas que garantizan la solvencia de **kutxa**, se destinan a fines sociales y culturales, en beneficio de nuestros clientes y de la sociedad en su conjunto.

### 2. Antecedentes y objetivos

El Instituto Oncológico es uno de los centros de referencia en el Estado en lo que respecta al tratamiento de enfermedades tumorales. Es una de las realizaciones de la Obra Social de **kutxa** más valoradas y el máximo exponente de la labor asistencial que desarrolla la Caja. Así pues, de sus resultados en 2008, **kutxa** ha destinado al Instituto Oncológico un total de 15,5 millones de €, lo que supone casi el 29 % del total de la aportación de **kutxa** para Obra Social en 2008. El mantenimiento ordinario del Instituto Oncológico, con 26,6 millones de euros de gasto, no sería posible sin los ingresos obtenidos por el Convenio económico mantenido con Osakidetza y Entidades Colaboradoras (22 millones de €) y, en menor medida, sin los ingresos del sector privado (2,5 millones de €). Entre ambos, han generado algo

zertxobait gehiago egiten dute, eta **kutxak** jartzen du gainerakoa (2 milioi €). Zentroaren ekipamendu teknologikoaren maila altuari eustera bideratutako beste 13,5 milioi € gehitu behar zaizkio gainera.

**Kutxaren** Gizarte Ekintzako proiektu nagusietako bat den Institutu Onkologikoak 1928. urtean ekin zion bere ibilbideari, 1933an Gipuzkoako Institutu Erradio-Kirurgikoaren fundazioa sortuko zuen zentroarekin. Ekimen horretan partaide izan zen orduko Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. Bi erakunde horien arteko lankidetzak mezenasgo bihurtu zen 1952an, Kutxak bere gain hartu zuenean Institutuaren mantenua eta kudeaketa.

Esan daiteke Institutu Onkologikoko medikuntza nuklearreko zerbitzuaren historiak islatzen duela, funtsean, medikuntza nuklearraren beraren historia. Izan ere, beste espezialitateetatik zetozen eta isotopo erradiaktiboekin lanean hasi ziren medikuekin hasi baitzen medikuntza nuklearra. Geroago iritsi ziren erradiologo gisa lanean hasi ziren medikuen taldeak, eta gaur egun, medikuntza nuklearreko espezialista garrantzitsuekin lan egiten da.

1993. urtean, Institutu Onkologikoak zerbitzuen dinamika funtzionala goitik behera aldatzeari ekin zion, gaixo guztiei diziplina anitzeko arreta emateko helburuarekin, eta aldaketa-prozesu horren ondorioz Unitate Funtzionalak sortu zituen.

Joan den mendeko azken hamarkadan, eta betiere **kutxaren** Gizarte Ekintzak lagunduta, Institutu Onkologikoak bere lana minbiziaren prebentzioan, diagnostikoan eta tratamenduan garatzeko etengabe modernizatzearen prozesu bati ekin zion, eta horrek Estatuko zentro aitzindarietako bat bihurtu zuen gaixotasun onkologikoen tratamenduan.

Urteak igaro ahala zentroa hazten joan da, eta hazkunde horrek arlo guztietan izan du bere isla: eskaintzen diren zerbitzuen, ospitale-tratamenduen, tratamendu ambulatorioen eta diagnostiko goiztiarraren kopuruan, eta, noski, gaixoen kopuruan ere bai.

### 3. Praktikaren garapena

**Minbizia tratatzeko eta hari aurea hartzeko XXI. Mendeko ospitale-azpiegitura nagusia bihurtzeko helburuarekin jaio da ONKOLOGIKOA.**

Gure gizartean minbiziak gero eta eragin handiagoa izateak, gaixotasun hauei aurre egiteko medikuntzako metodo berriak agertzeak, eta, bereziki, lan onkologikoan teknologia berriak erabiltzeko premia eta behar gero eta handiagoak bultzatu zuten **kutxa**, duela lau urte, Institutu Onkologikoarentzat egoitza berri bat eraikitzearen konpromisoa bere

más de 24 millones de €, aportando **kutxa** el resto (2 millones de €) a los que suma 13,5 millones de € adicionales aportados en aras a mantener el alto nivel de equipamiento tecnológico del centro.

El Instituto Oncológico, uno de los proyectos emblemáticos de la Obra Social de **kutxa** inició su andadura en el año 1928, con un centro que daría lugar en el año 1933 a la fundación del Instituto Radio-Quirúrgico de Gipuzkoa, una iniciativa a la que contribuyó la antigua Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa. Esta colaboración entre ambas instituciones se convertiría en mecenazgo en el año 1952, cuando la Caja asumió el mantenimiento y gestión del Instituto.

Puede afirmarse que la historia del servicio de medicina nuclear del Oncológico representa, en esencia, la propia historia de la medicina nuclear, ya que ésta se inició con los primeros médicos que procedían de otras especialidades y que comenzaron a trabajar con los isótopos radiactivos. Luego llegaron los equipos de médicos que trabajaron como radiólogos y, en la actualidad, se trabaja con destacados especialistas en medicina nuclear.

En 1993, el Instituto Oncológico emprendió un cambio fundamental en la dinámica funcional de sus servicios, orientándose hacia el abordaje multidisciplinar de todos los pacientes, lo que cristalizó en la creación de las Unidades Funcionales.

Durante la década de los noventa del pasado siglo, y siempre apoyado por la Obra Social de **kutxa**, el Instituto Oncológico emprendió un proceso constante de modernización para desarrollar su labor en la prevención, el diagnóstico y el tratamiento del cáncer, lo que le llevó a situarse como uno de los centros líderes en el Estado en lo que respecta al tratamiento de las enfermedades oncológicas.

El centro ha ido creciendo con el paso de los años, un crecimiento que se ha visto reflejado en todos los ámbitos, tanto en el número de servicios ofrecidos, en los tratamientos hospitalarios y ambulatorios, en los servicios de análisis y diagnóstico precoz, así como en el número de pacientes.

### 3. Desarrollo de la práctica

**ONKOLOGIKOA nace con el objetivo de convertirse en la gran infraestructura hospitalaria del siglo XXI para el tratamiento y la prevención del cáncer.**

La incidencia cada vez mayor del cáncer en nuestra sociedad, la aparición de nuevos métodos médicos de hacer frente a estas enfermedades y, especialmente, una necesidad cada vez mayor de incorporar nuevas tecnologías en el trabajo oncológico, impulsaron a **kutxa**, hace cuatro años, a asumir el compromiso de construir una nueva sede para el



gain hartzera. Kutzaren Gizarte Ekintzak 60 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu osasunaren eta gizarte-laguntzaren arloko ekimen aitzindari honetan. Kutzak tinko sustatzen duen proiektua da hau, egiten duen lanaren garrantziagatik, gizarte gipuzkoarrak estimu berezian duen lanagatik hain zuzen ere. Izan ere, Gipuzkoari mesede egiteaz gain, lan horrek duen eragina oso lagungarria gertatzen baitzaie Euskadiko eta Euskaditik kanpoko beste lurralde batzuei ere.

Kutzak osasunaren eta gizarte-laguntzaren arloetan duen lehenatasuneko jardueraren adierazgarri nagusi gisa aurkezten da ospitale-zentro berria:

- **Onkologikoa** Donostiako ospitale-aldean kokatzeak erosotasun eta konfort gehiago eskaintzen die erabiltzaileei eta gaixoen senitartekoei. Gainera, Miramon Zentro Teknologikotik eta inguruko ikerketa-zentroetatik hurbil egotea ere balio erantsia da osasun-zentroarentzat.
- Zazpi espezialitate dauzka: Bularra, Ginekologia, Larruzala, Digestiboa, ORL (burua, lepoa eta tiroidea), Urologia eta Onkohematologia + Birrikak. Unitate guztiak diziplina anitzekoak dira, eta espezialista onkologoek, kirurgialariek, erradiologoek eta psikologoek osatzen dituzte Gaixo bakoitza dagokion unitate funtzionalera bideratzen da: bertan egiten da gaixoaren azterketa eta bertan proposatzen zaio plan terapeutiko oso eta espezifiko.
- Onkologikoa jasangarritasun-irizpide zorrotzen arabera eraiki da, eta erabiltzaileek garatu dute erabiltzaileentzat, gaixoen eta haien senitartekoen egonaldia ahalik eta atsegina izan dadin, eta talde profesionalen lana arinagoa, eraginkorragoa eta erosoagoa egiteko

Joandako XX. mendean zehar **kutzaren** Gizarte Ekintza zen Donostiako Institutu Onkologikoa minbiziaren tratamenduan eta prebentzioan erreferentziako zentroetako bat bihurtu bazen Estatuan, oraingo **Onkologikoa** aurreko haren erabateko hobekuntzatik jaio da, XXI. menderako gure inguruko ospitale-azpiegitura garrantzitsuenetako bat bihurtzeko helburuarekin.

Instituto Oncológico. La Obra Social de la Caja ha invertido más de 60 millones de euros en esta iniciativa puntera en el ámbito de la salud y la asistencia social. Un proyecto que la Caja apoya con intensidad por la importante labor que realiza, excepcionalmente apreciada por la sociedad guipuzcoana y que, de hecho, no sólo beneficia positivamente a Gipuzkoa, sino que la influencia de su trabajo es de gran ayuda para otros territorios, dentro y fuera de Euskadi.

El nuevo centro hospitalario se presenta como el principal exponente de la prioritaria actividad de la Caja en los ámbitos de la salud y de la asistencia social:

- La ubicación de **Onkologikoa** en la zona hospitalaria de Donostia ofrece una mayor comodidad y confort a los usuarios y familiares de los enfermos. Además, presenta como valor añadido su proximidad al Centro Tecnológico de Miramón y a los centros de investigación de la zona.
- Cuenta con siete especialidades: Mama, Ginecología, Piel, Digestivo, ORL (cabeza, cuello y tiroides), Urología y Oncohematología + Pulmón. Todas las unidades son multidisciplinares y están integradas por especialistas oncólogos, cirujanos, radiólogos y psicólogos. Cada paciente es derivado a la unidad funcional correspondiente, que es la que realiza su estudio y plantea un plan terapéutico completo y específico.
- Está construido bajo estrictos criterios de sostenibilidad, se ha desarrollado por y para los usuarios, para hacer la estancia de pacientes y familiares lo más agradable posible y para proporcionar una mayor fluidez, eficacia y comodidad al trabajo de los equipos profesionales

Si a lo largo del pasado siglo XX el Instituto Oncológico de San Sebastián, Obra Social de **kutxa**, se constituyó como uno de los centros referenciales del país en el tratamiento y la prevención del cáncer, el nuevo **Onkologikoa** nace como un importante perfeccionamiento del anterior y con el objetivo de convertirse en una de las infraestructuras hospitalarias claves de nuestro entorno para el siglo XXI.

## Teknologia berriak

**Onkologikoa** berriaren lehenetsunetako bat minbizia detektatzeko teknika berrien ikerketan eta garapenean erreferentzia izatea da. Horregatik, zentroak lau mamografo digital ditu, lau diagnostiko-estazioekin osatzen direnak; eta baita CD-robot bat ere, krioterapia-teknika berriak aplikatzeko. Gainera, **Onkologikoa** erresonantzia magnetikoko unitate moderno bat ere izango du, lau ebakuntza-gela inteligente eta hamabi postu ambulatorio kimioterapiarako.

## Nuevas tecnologías

Una de las tareas prioritarias del nuevo **Onkologikoa** es ser un referente en la investigación y el desarrollo de nuevas técnicas en la detección del cáncer. Por este motivo, el centro cuenta con cuatro mamógrafos digitales que se complementan con cuatro estaciones de diagnóstico y un robot de CDs para aplicar nuevas técnicas de crioterapia. Además, **Onkologikoa** también dispondrá de una moderna unidad de resonancia magnética, cuatro quirófanos inteligentes y doce puestos ambulatorios para quimioterapia.



Baina Tomoterapia Helikoidala egiteko azeleragailu bat eskuratu izana da **Onkologikoaren** ekipamendu teknologikoaren barruan osagarik garrantzitsua, minbizia tratatzeko gaur egungo teknologiarik aurreratuenaren adierazgarri baita. *Tomotherapy Hi-Art* izeneko azeleragailu berria, AEBetako Wisconsin-Madison Unibertsitateak garatu du eta erradiazioen bidez egindako minbiziaren tratamenduan bizi dugun garai berriaren isla ezin hobea da, tumore askotan tratamenduen ezaugarriak aldatu eta hobetuko dituelako. Ekipamendu hori hirugarrena da Estatu espainolean eta hamabosgarrena Europan, eta tresna horrekin, mundu osoan tratamendu hori eskaintzen duten zentro mediko aitzindarien taldean sartzen da **Onkologikoa**.

Halaber, **Onkologikoa** baditu goi-energiako bi azeleragailu lineal eta kardiologia nuklearrerako hiru Gammakamera ere.

Pero el elemento más importante dentro del equipamiento tecnológico de **Onkologikoa** es la adquisición de un nuevo acelerador para hacer Tomoterapia Helicoidal, que actualmente representa la tecnología más avanzada en el tratamiento del cáncer. El nuevo acelerador, denominado “Tomotherapy Hi-Art”, ha sido desarrollado por la Universidad de Wisconsin-Madison (Estados Unidos) y supone una nueva era en los tratamientos del cáncer con radiaciones, cambiando y mejorando las características de los tratamientos en muchos tumores. Con este equipo, el tercero existente en el Estado español y el decimoquinto en Europa, **Onkologikoa** se une al centenar de centros médicos punteros de todo el mundo que ofrecen este tipo de tratamiento.

**Onkologikoa** dispone también de dos aceleradores lineales de alta energía y de tres Gammacámaras para cardiología nuclear.

Ekipamendu teknologikorik aurreratuena erabiltzeaz gain, **Onkologikoak** gaixotasun kantzerigenoen inguruko ikerketa bultzatzearen aldeko apustua ere egiten du, bularreko minbiziaren tratamenduari hurbilpen terapeutiko berriak egiten dizkioten ikerketa-proiektuak sustatuz, zelula amen biologiar buruzko azken aurkikuntzetan oinarritutako balizko terapia berrietan lan egiten duten eta sendatzeko tratamendu alternatiboak bilatzera zuzenduta dauden ikerketak, hain zuzen ere.

#### 4. Lortutako mesedeak eta onurak

**Onkologikoa** begirapuntua izango da nazio-mailan eta nazioarte-mailan minbiziaren aurkako borrokan, eta egungo Institutu Onkologikoak minbiziaren tratamenduan eta prebentzioan zentro monografiko gisa egin duen lanarekin jarraituko du. Goraipatua izan den lan bikain horrek jarri du, hain zuzen ere, nazio eta nazioarte mailako abangoardian minbiziaren aurkako borrokari dagokionez.

Izan ere, azken urteotan egin den lana era esponenzialean haziz joan da, eta egun 60.000 gaixo baino gehiago dira urtero zentroan artatu eta tratatzen direnak. 72.420 izan dira 2008. urtean institutu Onkologikoan artatutako pertsonak, eta horrek % 14ko igoera dakar 2007ko urtean artatutako pertsonen kopuruarekin (63.674 izan ziren) alderatuz gero.

**Onkologikoa**, beraz, Institutu Onkologikoaren eboluzioaren emaitza da, eta erreferentziako zentro mediko horrek aurrez aurre begiratu nahi dio XXI. mendeari azpiegitura berri honekin. Lekuz aldatu arren, urte hauetan guztietan Institutu Onkologikoaren oinarri izan diren balio eta zerbitzu guztiei eusten die, horrek bihurtu baitu **kutxa**ren Gizarte Ekintzaren atal garrantzitsu, batetik, eta osasunaren arloan egiten duen lan bikainaren egiazko ikur, bestetik.

Además de incorporar el equipo tecnológico más puntero, **Onkologikoa** también apuesta por el fomento de la investigación en torno a las enfermedades cancerígenas, impulsando proyectos de investigación que realizan nuevas aproximaciones terapéuticas para el tratamiento del cáncer de mama y que trabajan en el diseño de posibles nuevas terapias basadas en los últimos descubrimientos sobre la biología de las células madre y enfocadas a la búsqueda de tratamientos alternativos dirigidos a su curación.

#### 4. Beneficios conseguidos

**Onkologikoa**, que será un referente a nivel nacional e internacional en la lucha contra el cáncer, continuará con el trabajo desarrollado en el actual Instituto Oncológico como centro monográfico de prevención y tratamiento del cáncer, labor destacada y reconocida que le ha situado en la vanguardia, nacional e internacional, de la lucha contra esta enfermedad.

De hecho, el trabajo que se ha venido desarrollando en los últimos años ha ido creciendo de una forma exponencial, hasta el punto de que actualmente son más de 60.000 los pacientes que son tratados cada año en el centro. Han sido 72.420 las personas atendidas en el Instituto Oncológico en 2008, lo que supone un 14 % más de beneficiarios con respecto a 2007 (63.674 atendidas).

**Onkologikoa** es, de este modo, una evolución del Instituto Oncológico y quiere ser la nueva infraestructura con la que este centro médico referencial encare el siglo XXI. Cambia su ubicación física, pero conserva todos los valores y servicios que han cimentado el prestigio del Instituto Oncológico a lo largo de los años, lo que le ha convertido en una parte importante de la Obra Social propia de **kutxa** y en un auténtico símbolo de su destacada labor en el ámbito de la salud.



Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko Saila  
Garibai kalea, 15  
Posta-kodea: 20004  
Donostia  
Faxa: 943 42 45 26

Edozein argibide, ohar edo iradokizun egin nahi izanez gero, [sostenibilidad@kutxa.es](mailto:sostenibilidad@kutxa.es) posta elektronikora nahiz [calidad@kutxa.es](mailto:calidad@kutxa.es) helbidera helaraz dezakezu, edo baita bezeroen Arretarako Zerbitzura deituz ere 901 111 41.

Cualquier aclaración, comentario o sugerencia puede hacérsosla llegar también a la dirección de correo electrónico [sostenibilidad@kutxa.es](mailto:sostenibilidad@kutxa.es), [calidad@kutxa.es](mailto:calidad@kutxa.es) o por el teléfono del Servicio de Atención al Cliente, 901 111 411.

## Jatorri iraunkorreko materialen erabilera: Zur zertifikatua

### Utilización de materiales de origen sostenible: Madera certificada e igualdad de oportunidades



## 1. Enpresaren aurkezpena

OFITA INTERIORES Toki bikainak sortzera bideraturiko enpresa da, bere negozio linea ugarien bitartez. Horien artean daude barruetarako altzarien aholkularitza, fabrikazioa eta salmenta. Gasteizen dago, eta ordezkariak ditu Bartzelonan, Bilbon, A Coruña, Madrilen, Malagan, Sevillan eta Zaragozan. Horrez gain, hainbat kontinentetako hogeit hamar herrialde baino gehiagotan ere badago.

Ofita etengabeko hobekuntzaren abangoardian dagoen enpresa da. Hori egiaztatu egin da honako kalitate ziurtagiriek: kalitatearen ISO 9001, Ingurumenaren ISO 14001, Laneko Arriskuen OHSAS 18001 eta eko-diseinuaren UNE 150301.

Berrikuntza prozesu horri guztiari 2004an Eusko Jaurlaritzak emandako Zilarrezko Q-a gehitu behar zaio, enpresa bikaintasuneko EFQM ereduaren helburuak lortze maila dela eta.

Pertsonak eta haien ongizatea izan dira, eta gaur egun ere badira, konpainia honen helburu nagusia.


## 1. Presentación de la empresa

OFITA INTERIORES es una empresa dedicada a crear lugares estupendos a través de sus múltiples líneas de negocio que incluye actividades tales como asesoramiento, fabricación y venta de mobiliario para interiores. Situada en Vitoria-Gasteiz, cuenta con delegaciones en Barcelona, Bilbao, La Coruña, Madrid, Málaga, Sevilla y Zaragoza, además de estar presente en más de veinte países de varios continentes.

Ofita es una empresa situada en la vanguardia de la mejora continua. Este hecho se ve avalado en sus certificaciones de calidad ISO 9001, en Medio Ambiente ISO 14001, en riesgos laborales OHSAS 18001 y Ecodiseño UNE 150301.

A todo este proceso de innovación se le añade la consecución en el año 2004 de la Q de Plata otorgada por el Gobierno Vasco por el grado de consecución de los objetivos del modelo EFQM de excelencia empresarial.

Las personas y su bienestar, ha sido y sigue siendo el principal objetivo de esta compañía.



Ofitaren Iraunkortasun markoa.

Marco de sostenibilidad de Ofita.

Enpresaren merkataritza politika aholkularitza bidezko salmentan oinarritzen da, hau da, OFITA ez da altzariak saltzera mugatzen, bere bezeroei aholkularitza ematen die, espazioen diseinuan eta kudeaketan eragina duten alderdi guztien gainean, zerbitzu integralak eskainiz hainbat girotarako, bulegoak, contract-ak, liburutegiak, erietxe eta zahar etxeak eta, horietan oinarrituz, bezero bakoitzaren beharretara egokitzen diren espazioaren banaketarako eta altzarietarako proiektuak burutzen ditu.

## 2. Aurrekariak eta helburuak

OFITA INTERIORES, garai hartan oso berria zen Ekodiseinu metodologia aplikatu zuen Euskadiko lehenbiziko lau enpresa aitzindarietako izan zen 1999an. Garai hartatik gaur egun arte, OFITAK lanean jarraitu du gero eta ingurumen eragin txikiagoa duten produktuak lortzeko helburuz.

1999an Eko-diseinuari buruzko proiektu pilotua amaitu eta gero, OFITA ingurumenaren aldagaia sartzeko joan da bere lan egiteko moduan, aurrera eraman dituen proiektu guztietan. 2005eko erdialdean Ekodiseinuan Kudeaketa sistema ezartzeko ezarpen prozesuari ekin zitzaion eta azkenean, 2006an, horren ziurtapena lortu zen.

Etengabeko hobekuntzarekin duen konpromisoarekin bat etorritik, OFITAK Kustodia Katea sistema ezartzeko eta ziurtatzeko proiektuari ekin dio, zurraren eratorriak diren produktuen erabilera aipagarria baita altzariak egiteko orduan.

## 3. Praktikaren garapena

Proiektua, OFITAK bere produktuetan erabiltzen duen zura, era iraunkorrean ustiatutako basoetatik datorrela bermatzen duen Kustodia Katea (CdC) sistemaren ezarpena eta ziurtapena izan da.

Su política comercial se basa en la venta por asesoramiento, es decir, OFITA no sólo vende muebles, sino que asesora a sus clientes sobre todos aquellos aspectos que inciden en el diseño y gestión de espacios ofreciendo servicios integrales en ambientes que van desde la oficina, contract, bibliotecas, ambientes clínicos y geriátricos, y, basándose en ellos, desarrolla proyectos de distribución del espacio y amueblamiento que responden a las necesidades individuales de cada cliente.

## 2. Antecedentes y objetivos


OFITA INTERIORES fue en el año 1999 una de las cuatro empresas pioneras en el País Vasco en aplicar la entonces reciente metodología de Ecodiseño. Desde aquel momento y hasta hoy en día, OFITA ha seguido trabajando con el objetivo de conseguir productos con cada vez menor impacto ambiental.

Tras la finalización en 1999 del proyecto piloto de Ecodiseño, OFITA ha ido incorporando progresivamente en su modo de trabajo la variable medioambiental en todos aquellos proyectos que ha ido desarrollando. A mediados del año 2005 comenzó la implantación definitiva de un sistema de Gestión en Ecodiseño, para finalmente en 2006 conseguir la certificación del mismo.

Conforme a su compromiso con la mejora continua OFITA ha abordado un proyecto de implantación y certificación de un sistema de Cadena de Custodia al ser significativo el uso de productos derivados de la madera en la fabricación de los muebles.

## 3. Desarrollo de la práctica

El proyecto ha consistido en la implantación y certificación de un sistema de Cadena de Custodia (CdC) que garantice que la madera que incorpora OFITA en sus productos proviene de bosques explotados de forma sostenible.



Neurri horren jarraipena eta eraginkortasuna bermatu ahal izateko hornidura katea guztia aztertu dugu eta gure hornitzaile guztiak proiektuan sartu ditugu. Horrela, hornitzaileek ere antzeko sistemak ezarri eta ziurtatu dituzte.

Aukeratutako eredia PEFC (Programme for the Endorsement of Forest Certification) izenekoa izan da eta garatutako sistema dokumentala OFITAREN Kudeaketa Sistema Integratuaren barruan sartu da.



PEFC ziurtagiria basoen kudeaketa iraunkorraren borondatezko sustapen eta ziurtapen sistema gisa egituratzen da. Ziurtapenak basoko produktuen eraldaketa prozesu osoa hartzen du, industriatik igarotzea barne, eta era iraunkorrean kudeatutako basoetatik etorritako egurra identifikatzen duen etiketa (logoa edo marka) eskaintzen du.

#### 4. Lortutako onurak

Ziurtatutako egurra, ekologiaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspegietatik era iraunkorrean kudeatutako basoetatik ekarritakoa da. Hori horrela da, izan ere, Kustodia Katean ziurtatutako hornitzaileetatik edo, azterketa zorrotza egin ondoren, egon daitezkeen arrisku iturri guztiak baztertu ondoren datozelako.

OFITAREN hornitzaile nagusiek bat egin dute ekimenaekin, sistema baliokideak ezarri eta ziurtatu.

Neurri horrek aukera eman digu aurre hartzeko kontratazio publiko berdearen jarraibide berrien ondoriozko eskakizunak betetzeko orduan.

Para garantizar la continuidad y la efectividad de esta medida hemos analizado toda la cadena de suministro e involucrado a todos nuestros proveedores en el proyecto, de forma que también ellos han implantado y certificado sistemas equivalentes.

El modelo elegido ha sido el PEFC (Programme for the Endorsement of Forest Certification) y el sistema documental desarrollado se ha incluido dentro del Sistema Integrado de Gestión de OFITA.



La certificación PEFC se configura como un sistema de promoción y certificación voluntaria de la gestión forestal sostenible. La certificación abarca todo el proceso de transformación de los productos forestales desde el monte al consumidor, incluyendo su paso por la industria, y proporciona una etiqueta (Logotipo o marca) que identifica su procedencia de bosques gestionados de manera sostenible.

#### 4. Beneficios conseguidos

La madera certificada procede de bosques gestionados de forma sostenible desde el punto de vista ecológico, económico y social. Esto es así debido a que proceden de proveedores certificados en Cadena de Custodia o a que tras un exhaustivo análisis, se han descartado todas las fuentes posibles de riesgo.

Los principales proveedores de OFITA se han unido a la iniciativa implantando y certificando sistemas equivalentes.

La medida nos ha permitido adelantarnos en el cumplimiento de los requisitos derivados de las nuevas directrices en la contratación pública verde.



Ziurtatutako egurraren ingurumen eragina ziurtatu gabearena baino askoz txikiagoa da, eta asko laguntzen du gure produktuen ingurumen eragina murrizten.

*“MIMOSA”(\*) aulkiaren adibidea:*

Ingurumen eraginaren %40ko murrizketa ekoizpen fasean, batez ere era iraunkorrean ustiatutako basoetatik ekarritako zura eta uretako bernizak erabiltzeagatik.

Produktuaren azken eragina, diseinuan beste zenbait hobekuntza ezarri eta gero, produktuaren hasierako diseinuak zuen eragina baino %41 txikiagoa izan da.

Aurreko produktuekin alderatuz lortutako eragin murrizketari dagokionez, produktuaren eragin orokorren %19ko murrizketa lortu da.

*(\*) IHOBEn argitaratuko Ingurumen Bikaintasun Kasu Praktikoak.*

Egur ziurtatuen erabileraren ondoriozko beste onura batzuk, produktu horiek basoan desagertu ez diotela laguntzen badakiten kontsumitzailearen konfiantza edo baso ustiapenetan ematen diren lan baldintzen segurtasuna dira, ziurtapenak, gehiegizko esplotazioaren aurkako neurrien dekalogoak ere baduelako berarekin.

El impacto ambiental de la madera certificada es muy inferior a la no certificada, contribuyendo notablemente a la disminución del impacto ambiental de nuestros productos.

*Ejemplo de aplicación a la silla “MIMOSA”(\*):*

Reducción del 40 % del impacto ambiental en la fase de producción, principalmente por la utilización de maderas procedentes de bosques explotados de forma sostenible y a la utilización de barnices al agua.

El impacto final del producto, una vez implantadas otras mejoras en el diseño, ha sido un 41 % inferior al impacto del diseño inicial del producto.

En lo relativo a la reducción de impacto respecto a productos anteriores se ha conseguido una reducción de un 19 % del impacto global del producto.

*(\*) Caso Práctico de Excelencia Ambiental Publicado por IHOB.*

Otros beneficios derivados de la utilización de maderas certificadas, van desde la confianza del consumidor, que conoce que la adquisición de estos productos no contribuyen a la destrucción de la masa arbórea, hasta la propia seguridad en las condiciones de trabajo en las explotaciones forestales, ya que la certificación va acompañada de un decálogo de medidas contra la explotación abusiva.



**OFITA INTERIORES, S.A.**

Eskalmendi, 3 - Betoño Industria Pol.

01013 Gasteiz

Araba

Tel.: 945 26 37 00 – Faxe: 945 25 40 98

[www.ofita.com](http://www.ofita.com)

## Metro Bilbao iraunkortasunari begira

### El enfoque de Metro Bilbao hacia la sostenibilidad



metro bilbao



## 1. Aurkezpena

Metro Bilbao S.A. Sozietate Anonimoa da, publikoa, pertsonak garraiatzen dituena, 1995eko azaroaren 11n zerbitzuari ekin zionetik.

Garraio publikoko zerbitzu berria hasi zen orduan, oinarrizko helburu hauekin:

- Hiriko trafikoa hobetzea Bilboko metropoliaren eremuan.
- Garraio publikoaren kalitatea areagotzea.
- Garraio publikoko sistemen ardatza izatea.
- Metropoliaren eremuko bizitza eta jarduera dinamizatzeko bitartekoa izatea.

Helburu horiek lortuta, Bizkaiko lurraldeko mugikortasunaren iturri nagusietako bat izatera heldu da Metro Bilbao, garraio pribatuaren erabilera murrizten lagunduz.

Metro Bilbaok ekarpen handia egin dio garraio ekologikoagoari; izan ere, trenbideko garraioak gaur egun dauden beste garraiabideen aldean ingurumenean nabarmen gutxiago eragiten du, erregai fosilen kontsumoa eta berotegi efektuko gasen emisioa minimizatzen dituenez gero. Ekonomiaren garapenaren ikuspegitik, metroak funtsezko zeregina bete du eskura duten eremuetan etxebizitzaren eskari erlatibo

## 1. Presentación

Metro Bilbao, S.A. es una Sociedad Anónima de carácter público de servicio de transporte ferroviario de personas, que comenzó a prestar su servicio el día 11 de noviembre de 1995.

En este momento se iniciaba un nuevo servicio de transporte público con los siguientes objetivos fundamentales:

- Mejorar el tráfico urbano en el área metropolitana de Bilbao.
- Elevar el nivel de calidad del transporte público.
- Ser el eje vertebrador de los diversos sistemas de transporte público.
- Ser el instrumento dinamizador de la vida y de la actividad en el área metropolitana.

La consecución de estos objetivos ha hecho de Metro Bilbao una de las principales fuentes de movilidad del territorio vizcaíno, contribuyendo así a la reducción del uso del transporte privado.

La aportación de Metro Bilbao a un transporte más ecológico ha sido muy importante, ya que el transporte por ferrocarril supone un impacto ambiental significativamente menor que las principales alternativas existentes, puesto que minimiza el consumo de combustibles fósiles y las emisiones de gases de efecto invernadero. Desde el punto de vista del desarrollo económico, el metro ha jugado un papel



handiagoa eta enpresen eta merkataritzaren garapen handiagoa ekarri dituen aldetik. Era berean, Metro Bilbaori esker, herritarrek errazago izan gudte aisialdiko eta gozameneko ekitaldietara joatea.

Metro Bilbaok, sortu zenetik, ingurunea errespetatzearen, bezeroei kalitatezko zerbitzua ematearen eta gizarteari Bilboko metropoliko herritarren bizimoduaren kalitatea hobetzen laguntzearen aldeko apustua egin du.

## 2. Proiektuaren deskripzioa


Metro Bilbaoren helburu nagusietako bat bere jardura garapen iraunkorrean laguntzeko bitarteko bhurtzea da. Horregatik sortu zuen Metro BIO izeneko kanpaina, bezeroek eta gizarteak oro har kontzientzia har dezaten garraio publikoak ingurumena zaintzen eta herritarren bizitzaren kalitatea hobetzen laguntzen duela.

fundamental a través de sus efectos de mayor demanda relativa de vivienda y de un mayor desarrollo empresarial y comercial de aquellas zonas que disponen de él. Así mismo, gracias a Metro Bilbao la ciudadanía ha visto incrementadas sus posibilidades de movilidad para sus actividades de ocio y tiempo libre.

Metro Bilbao, desde su origen, ha apostado por el respeto a su entorno, por prestar un servicio de calidad a sus clientes y colaborar con la sociedad para mejorar la calidad de vida de los ciudadanos del Bilbao metropolitano.

## 2. Descripción del proyecto

Uno de los principales objetivos de Metro Bilbao es hacer de su actividad un medio para la contribución al desarrollo sostenible. Es por esto que surge la campaña con el nombre de Metro BIO, con objeto de concienciar a los clientes y a la sociedad en general sobre la contribución del transporte público al cuidado del medio ambiente y a la mejora de la calidad de vida de la ciudadanía.



Metro Bilbaok, zerbitzuari ekin zionetik, ingurumena eta gizartea kudeatzen bikain aritzea lortzearen aldeko apustua egin du, nazioartean aitortutako estandarrak sartuz. 2000n hasi zen, Ingurumena Kudeatzeko Sistema ISO 14001 Arauaren arabera egiaztatuta. Ziurtagiri hura lehen urratsa izan zen Erakundeko langile guztiei garapen iraunkorraren kontzeptua azaltzeko eta horretan sentsibilizatzeko, baina 2004an sartu zen kontzeptua enpresaren eginkizunean, ikuspegiari eta balioetan, EFQM ereduaren oinarritutako prozesuak kudeatzearen sistema ezarri zenean, eta gaur egun ikusgai dago metroaren tren guztietan, erabiltzaileak jakitun egon daitezela.

Metro Bilbao, desde el inicio de su actividad ha apostado por conseguir la Excelencia en la gestión ambiental y social a través de la inclusión de estándares reconocidos a nivel internacional. El comienzo tuvo lugar en el año 2000 mediante la certificación del Sistema de Gestión Ambiental según la Norma ISO 14001. Con esta certificación se comenzó a sensibilizar y exponer el concepto del desarrollo sostenible a todos el personal de la Organización, pero fue en 2004, gracias a la implantación de un Sistema de Gestión por procesos basado en el modelo EFQM, cuando se incluyó dicho concepto en la Misión, Visión y Valores de la empresa, estando hoy día expuesto

Gainera, Metro Bilbaok ziurtatutako beste Kudeaketa Sistema batzuk ere baditu, hala nola, ISO 9001, EMAS eta SGE 21.

Metro Bilbaok kudeatzeko sistema horiek ezartzen dituen hartzen duen konpromisoa Ingurumen Politikan, Kudeaketa Etikoko Politikan islatzen da, baita Zuzendaritzak zehazten dituen estrategia, ingurumen, gizarte eta abarretako helburuetan ere.

Metro Bilbaok ingurumenaren, laneko segurtasunaren eta osasunaren eta industriako segurtasunaren alorretan dagozkion lege eskakizun guztiak betetzea lehenesten du. Hainbat prozedura ditu horretarako, betebeharrak identifikatzeko eta betetzen dituen ebaluatzeko, metroa langileentzat, bezeroentzat eta inguruarentzat segurua eta errespetuzkoa izan dadin.


Esan dezakegu Metro Bilbaoren estrategia garapen iraunkorraren oinarri diren ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren hiru dimentsioetan jokabide egokia eta eraginkorra izatea dela, baita jarduna kalitatezko zerbitzua eskaintzera bideratzea eta interes taldeak horretara bultzatzea ere, haien beharrak eta itxarokizunak zein diren ezagutu eta orekaz asez.

en TODAS las unidades de metro para la información de los y las usuarias. Además, Metro Bilbao dispone también de otros Sistemas de Gestión certificados como son ISO 9001, EMAS, y SGE 21.

El compromiso que adquiere Metro Bilbao mediante la implantación de dichos Sistemas de Gestión se ve plasmado en su Política Medioambiental, Política de Gestión Ética, así como en la consecución de los diversos objetivos estratégicos, ambientales, sociales, etc. definidos por la Dirección.

Metro Bilbao tiene como prioridad el cumplimiento de todos los requisitos legales ambientales, de seguridad y salud laboral y seguridad industrial de aplicación. Para ello dispone de varios procedimientos que establecen los sistemas de identificación y evaluación del cumplimiento de los mismos para hacer del metro una organización segura y respetuosa con los trabajadores, clientes y su entorno.

Podemos decir que la Estrategia de Metro Bilbao consiste en proporcionar un comportamiento adecuado y eficiente en la triple dimensión económica, social y medioambiental, en la que se fundamenta el Desarrollo Sostenible, así como en orientar su actividad hacia la oferta de un servicio de calidad, y ejercer un efecto tractor sobre sus Grupos de interés, conociendo y satisfaciendo equilibradamente sus necesidades y expectativas.



Kudeaketa bikainaren bitartez, erakundeko maila guztiak horretan inplikaturik, gizarteari galdetuz eta pertsonen eskariak aztertuz eta asez, horrela egin nahi du aurrera Metro Bilbaok Erabateko Kalitatearen eta Garapen Iraunkorraren bidez.

Mediante una gestión excelente, involucrando en ella a todos los niveles de la organización, preguntando a la sociedad y analizando y satisfaciendo los requerimientos de las personas, es como Metro Bilbao pretende avanzar hacia la Calidad Total y hacia el Desarrollo Sostenible.

Horrela, mezua langileen, bezeroen eta, oro har, gizartearen artean zabaldu da. Bidea ez da, ordea, hor amaitzen, gure helburua norabide berean ahalegintzen segitzea denez gero, lan ildo eguneratu eta bizirik, proiektuak indarrean iraungo badu.

Proiektuen onura edota oihartzun nagusia Metro Bilbaok garapen iraunkorrari hiru alderdien, hots, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspegietatik, laguntzen diola da, nazioarteko erreferentziako arauetan oinarritutako kudeaketa sistemak ezarri eta sistema horiek eguneroko jardun eta dinamikan txertatzen dituen gero.

Metro Bilbao aitzindaria da bere sektorean Kalitatea, Ingurumena eta Gizartearekiko Ardura kudeatzeko sistemak ezartzeari eta ziurtatzeari dagokienez. Era berean, beste erakunde batzuek ere aitortu eta saritu diote jardueran bertan eta prozesuen kudeaketan izan duen arrakastarengatik. Enpresak hartu dituen konpromiso horiek eguneroko jardunean garatzen dira eta interes talde guztiei zabaltzen zaizkie aurkeztutako txostenean aipatzen diren hainbat kanpainaren eta beste ekintza batzuen bidez.

***Metro Bilbaok beti hartu nahi izan duen bidearen hasiera da hau, ingurumena eta gizartearekiko ardura enpresaren kudeaketa orokorrean txertatzea dakarrena. Horrela, bezeroei, hornitzaileei eta gizarteari oro har inguruarekin arduratsua den garraio publikoa erabiliz garapen iraunkorrean laguntzeko bitartekoa ematen zaie.***

De esta manera el mensaje se ha conseguido extender al personal, clientes y sociedad en general. Sin embargo, no es éste el final del camino, nuestro propósito es seguir esforzándonos en la misma dirección, manteniendo una línea de trabajo actualizada y viva que nos permita mantener la vigencia del proyecto.

El principal beneficio y/o repercusión del proyecto se puede resumir en la contribución de Metro Bilbao al desarrollo sostenible en sus tres variables: ambiental, económica y social, gracias a la implantación de Sistemas de Gestión basados en normas de referencia internacional y la integración de los mismos en su actividad y dinámica diaria.

Metro Bilbao es una empresa pionera en su sector en implantar y certificar sus Sistemas de Gestión de Calidad, Medio Ambiente y Responsabilidad Social. Así mismo, ha sido reconocida y premiada por otras organizaciones por el éxito obtenido en su propia actividad y en la gestión de sus procesos. Estos compromisos adquiridos se desarrollan día a día en su actividad y son difundidos a todos sus grupos de interés a través de diversas campañas y otras acciones comentadas en el informe presentado.

***Entendemos que éste es el principio de un camino por el que Metro Bilbao siempre ha apostado, en el que el medio ambiente y la responsabilidad social esté integrada en la gestión global de la empresa para ofrecer a los clientes, personal, proveedores y sociedad en general un medio de contribución al desarrollo sostenible mediante el uso de un transporte público responsable con su entorno.***



metro bilbao

Navarra kalea, 2

48001 Bilbao

Telf. 94 425 40 00 - Faxes 94 425 40 39

## Katearen Bizi Zikloaren Azterketak

### Análisis del Ciclo de vida de la cadena



## 1. Enpresaren aurkezpena

Vicinay Cadenas, S.A. (VCSA), Bilbon egoitza duen enpresa familiarra da, kateak eta euren beharrezko osagarriak diseinatu egiten dituen ontzigitza eta petrolio industriarako.

VCSA-ek bi produkzio-gune ditu EHAEan: Bilbon eta Galdamesen, non 240 pertsonen beharrezko ekin-tzak garatzen dituzten, aingura merkatuak eskatzen dituen produktu ezberdinak ekoizteko.

## 1. Presentación de la empresa

Vicinay Cadenas, S.A., es una empresa familiar con sede en Bilbao, que diseña y fabrica cadenas y sus correspondientes accesorios con destino al sector naval y la industria del petróleo.

VCSA cuenta con dos centros productivos en la CAV: Bilbao y Galdames, en donde 240 personas desarrollan las actividades necesarias para la provisión de los distintos productos que el mercado del fondeo demanda.



## 2. Aurrekari eta helburuak

- Vicinay Cadenas, metal astunen enpresa izanda, sortzen duen eraginaz jakitun da, eta horregatik sentikortasun hau ingurumen jokaera iraunkor eta arduratsu baten bila bideratu egin du.
- Balioetsitako ekimen ezberdinen artean, Produktu Ingurumen Adierazpen baten berriemate zintzoa aukeratu da, zeinek III. Motako Ekoetiketa duten azken leinuko kate mota ezberdinen egiaztapena ahalbidetzen duen, goi mailako betekizunak dituen jardunbide eta produktu baten iraunkortasunaren onarpen bezala.

## 2. Antecedentes y objetivos

- Vicinay Cadenas ha sido consciente del impacto que su actividad como empresa pesada del metal genera, por lo que ha gestionado esta sensibilidad en la búsqueda de un comportamiento ambiental responsable y sostenible.
- Entre las diversas iniciativas valoradas se ha optado por la comunicación formal de una Declaración Ambiental de Producto que permita la certificación de una amplia gama de cadena de última generación con una Ecoetiqueta Tipo III, reconocimiento de sostenibilidad de proceso y producto de alta exigencia.

### 3. Praktikaren garapena

#### Plangintza

2007ko udan VCSA-ek, katea ingurune produktu arduratsu bezala ziurtatzeko erabakia hartzen du sentikortasuna ezartzeko eta bide berri bat hasteko asmoz, esparru honetan ez baita honelako aurrekaririk ezagutzen.

### 3. Desarrollo de la práctica

#### Planificación

En verano de 2007 VCSA toma la decisión de certificar la cadena como producto ambientalmente responsable con el fin de iniciar un nuevo camino que aporte esta sensibilidad en un ámbito de negocio necesitado de esta consideración, ya que no se conocen precedentes de este tipo en el sector.



Hasiera batean, proiektua burutzeko urte bateko epe orientagarria balioetsi zen, baina aldi eta tramiteen betetzea luzeagoa da errealitatean Environdec-en (ziurtagiria eskatzen zaion erakunde egiaztatzaile suediarra) homologazioa behar baita. Environdec-ek egiaztatzaile bezala jardungo du, Produktuaren Bizi Zikloaren Azterketan emandako datuen zehaztasuna eta benetakotasuna egiaztatzeko, eta baita bere egitekoan beharrezkoak diren jardunbide eta ekintzetarako ere. Egiaztatzaile honen irudiak, orain arte gurea bezalako produktu batentzat existitu ez denak, 10 hilabete baino gehiago behar izan zituen bere homologaziorako.

Egiaztatzailearen onarpena lortu ondoren, aipatutako produktuaren Bizi Zikloaren Azterketa (BZA) egiteko erabilitako datuak eguneratu behar izan ziren, emandako lehenengo datuak 2007 urtekoak baitziren. Lan hau, aurkeztutako datuak errealitateari egokitzeko, 2009ko maiatzean egin zen.

Proiektuaren aldi ezberdinen laburpena hurrengoa da:

1. BZA burutzeko IK ingeniariatzarekin lankidetasuna 2007ko ekaina
2. Kate baten Bizi Zikloaren Lehen Azterketa (BZA) 2008ko iraila
3. Produktuaren Lehen Ingurumen Adierazpena 2008ko urria

Inicialmente se estima un período orientativo de un año para completar el proyecto, siendo la realidad de la cumplimentación de fases y trámites bastante más prolongada, al ser necesaria la homologación por Environdec (organismo certificador sueco a quien se solicita la certificación) de un verificador que constate la exactitud y autenticidad de los datos aportados para el Análisis del Ciclo de Vida del Producto, así como las operaciones y procesos utilizados para su realización. Esta figura del verificador, hasta el momento inexistente para un producto como el nuestro, requirió de casi 10 meses para su homologación.

Conseguida la aprobación del verificador hubo que actualizar todos los datos con que se había confeccionado el mencionado análisis del ciclo de vida, ya que los primeros que se aportaron correspondían al ejercicio 2007, lo que se realizó durante el mes de mayo 2009 para presentar datos ajustados a la realidad.

El resumen de las distintas fases del proyecto es el siguiente:

1. Colaboración con IK Ingeniería para realización ACV Junio 2007
2. Primer Análisis del Ciclo de Vida de una cadena Sept. 2008
3. Primera Declaración Ambiental de producto Octubre 2008

4. Katearen Bigarren Bizi Zikloaren Azterketaren gauzatzea 2009ko maiatza
5. Produktuaren Ingurune Adierazpenaren (PIA) osatzea 2009ko maiatza
6. BZA eta PIA-ren atxikimenduaren egiaztatzea 3.aldiz 2009ko ekaina
7. Environdec-ra (Suecia) egiaztatutako dokumentazioaren igorpena 2009ko ekaina
8. PIA III. Motako Ekoetiketaren Environdec ziurtagiria 2009ko uztaila

4. Realización del 2.ª Análisis del Ciclo de Vida Mayo 2009
5. Confección de la Declaración Ambiental de Producto Mayo 2009
6. Verificación de conformidad de ACV y DAP por 3.ª parte Junio 2009
7. Emisión de documentación verificada a Environdec (Suecia) Junio 2009
8. Certificación de Environdec de EcoEtiqueta Tipo III EPD Julio 2009

## Hobekuntzak

- Katearen Bizi Zikloaren Azterketak, prozesuaren operazio bakoitzeko eta lehengaien altzairu-hornitzailearen eragin xeheak ezagutzea ahalbidetu dio VCSA-i. Era berean, iraunkortasun industrial hobe baten bilakuntzan, hobekuntza aukerak identifikatzeko informazio oso baliagarria eskaintzen du.
- Normalean egiten diren energia-ikuskatzeen aldean, ingurune-adierazpenak, antolakuntzaren jokamoldea aztertzen du era zorrotz eta zabal batean, zehaztasunetan eragitea laguntzen duelarik.

## Taldearen ezagutza

- Kanpo-aholkularitza: IK Ingenieros.
- Vicinay Cadenasen prozesuak (Kudeaketa Sistema Barneratuak, Mantentze eta Hornikuntza).
- Serumano Enpresa egiaztatzailea.

## 4. Lortutako etekinak

- 2008rako datuak emaitzetara gaurkotzerakoan, eta aurretik esan den bezala informazioa eguneratzeko beharizana zela eta, kuprearekin fabrikatutako elementu batzuen erabileraren murriztapena egiaztatuta ahal izan da bere erabilerak sortzen duen zigorra

## Mejoras

- El Análisis del Ciclo de Vida de la cadena ha permitido a VCSA conocer con detalle sus impactos por cada operación de proceso, incluidos los del acerista suministrador de la materia prima, lo que aporta una información muy valiosa a la hora de identificar oportunidades de mejora en la búsqueda permanente de una mayor sostenibilidad industrial.
- A diferencia de las auditorías energéticas al uso, la declaración ambiental analiza comportamientos de la organización con una visión amplia y detallista, permitiendo incidir en detalles más allá de la consideración meramente cuantitativa.

## Identificación del equipo

- Asesoría externa: IK Ingenieros.
- Los procesos de Vicinay Cadenas (Sistemas Integrados de Gestión, Mantenimiento y Aprovisionamiento).
- Empresa verificadora Serumano.

## 4. Beneficios conseguidos

- Al actualizar los datos a resultados 2008, tal y como hemos comentado anteriormente por la necesidad de actualizar la información, se ha podido comprobar una disminución en el uso de determinados elementos fabricados con cobre por la fuerte





asociación de empresas vascas por la sostenibilidad  
iraunkortasunaren aldeko euskal enpresen elkarte

Parque Tecnológico, 101  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
[izaite@izaite.net](mailto:izaite@izaite.net)